

2007KO APIRILAREN 28KO **EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko apirilaren hogeita zortzian, goizeko bederatzietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Arantxa Zumelaga Agirre, Amagoia Naldaiz Mingo, Juan Manuel Serna Portugal eta Angel Olaso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga, Xanet Barreras Jauregi, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Intsausti, Inazio Barandiaran Aldasoro eta Kepa Goenaga Alikostes zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- 2007KO MAIATZAREN 27KO HAUTESKUNDE MAHAIETARAKO MAHAIKIDEAK AUKERATZEKO ZOZKETA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Eguneko Gai Zerrendako puntu bakarrari ekiten zaio, 2007ko maiatzaren 27an egingo diren Udal eta Batzar Nagusietara Hauteskundeak direla eta Hauteskunde Mahaietako partaideak aukeratzeko zozketari hain zuzen ere, Hauteskundeetako Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 26.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Zozketa horretarako prestatutako informatika programa baten bidez egiten da, datuak Lazkaoko hautesle zentsutik hartzen dira, Instituto Nacional de Estadística erakundeak bidalitako CONOCE programatik hain zuzen.

Zozketaren ondoren Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahaietarako presidente eta bokalak aukeratzen dira, titular nahiz ordezkioak, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jasotzen direlarik.

II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, goizeko bederatzia eta laurden direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.